

Goierri tarra

316. zenbakia 2007ko otsailak 23

Goimenen egitasmoa

SIMAU-R-KONPOSTA


saray
ILEAPAINDEGIA

aire berriua
ileapainketan

Oriamendi Kalea / Etxe-Ubi Eraikina, 1
20200 Beasain Gipuzkoa
Tel. 943 161 755



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.


(Medikuntza estetikoan masterra)

A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Iban Urdangarin

Garizuma

Hauster egunez hasitakoa
berrogei egunen jiran
zazpi ostiral haragi gabe
etortzen dira segidan
otordu bat bakarra
sardiña ta sagarra
txuleta on baten miran
orain ez dakit ohitura hoiek
hain zuzen betetzen diran.

Penitentziak leunduz doaz
garbi ez al da nabari
nork uko egin eguneroko
jaki goxoa denari
baraurik ez bazpare
jan bildurrikan gabe
nahi horrenbeste janari
azken finean nahi ezta ere
denok gara pekatari.

Doinua: Iparragirrerena

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

Goierritarra

diruz laguntzen duten
erakundeak:


Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

- 4. Iritzia:** Jon Ordoñez.
- 5. Ingurugiro txokoa:** Ume jolasak.
- 6. Euskara txukuntzen:** Betiko, betirako.
- 8. Errezeta:** Zainzuri txupitoak.
Aholkua: Ukipen lenteak.
- 10. Erreportajea:** Goimen elkartearen apustu berria: simaur-konposta.
- 14. Elkarrizketa:** Iñaki Amundarain, korrikalaria eta Sahararen aldeko lasterketaren antolatzailea.
- 18. Erreportajea:** Euskal Herriak Bere Eskola: 'Euskara erabiliz, euskara plazaratu'.
- 22. Goierritarrak munduan:** Dani Oiartxide: Londresko euskara irakaslea.
- 26. Gazteleku:** Garikoitz Bravo txirrindularia.
- 28. Iragarki laburrak.**
- 30. Argazki zaharra.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Jon Ordoñez

Azterketa zailena

Eskola garaiko kontuak dira. Urtean bi edo hiru aldiz errepikatzen zen gauza bera. Nire esperientziagatik diot. Azterketa bat ondo prestatzen denean, etxeko lanak egin eta ikasi beharrekoa ikasten denean, ikaslea zalantzaz beteta joaten da bere buruarekin duen hitzordura, galdera bat erantzuteko orri batean duen espazio txurira. Orduan eta gehiago ikasi, orduan eta gehiago dira zalantzak. “Ezer ez dakidala dakit soilik”, esan zuen Socratesek filosofo atenastarrak. Bere inguruan euren burua jakintsua eta aditua zela uste zutenei aurre egin zien. Orduan bezala, ordea, gaur egun ere ezjakinak ez du horrenbesteko zalantzarik. Jakin beharko genukeena ez dakigula onartzea denontzat da zaila. Oker gabiltzala konturatzeko zailagoa da. Eta azken unean zer egin ez daukagula, ia ezinezkoa.

Azterketa bat egiteko bi egun falta direnean, ordura arte liburua ukitu ez duen ikaslea ariketa mentalak egiten hasten da: “Gaur zortzi atal bat ikasten baditut, afaldu ondoren errepasatzen baditut, bihar goiz jeiki ta beste pare bat atal irakurtzen baditut, bazkaldu aurretik legunekin gertatu eta elkarrekin aritzen bagara ikasten goizean, arratsaldean bi atal potoloenekin aritzen banaiz, gauean lau atal arin afaldu ondoren ikasten baditut, eta sei ordu lo egin ondoren azterketa egin aurretik hiru ordutan dena berriz ere irakurtzen badut, aprobatu dut”. Bi egunetan ordura arte egin ez duena egin nahi izaten du ikasleak, baina ahalegina estutu egiten da lehen egunean aurreikusitakoa betetzen ez dela konturatu orduko: aurreko urteetan galdetu ez dituzten atalak baztertu, atal ari-

nak ez ikasi eta soilik irakurri, atal potoloak ikasteko soilik hiru ordu egin lo...

Azkenean ikaslea konfiantzaz gainezka joaten da azterketara. Lezioen laurdena besterik ez du ikasi, baina bere kalkuluen arabera garrantzitsuena laurden hori denez, jakin beharrekoa badaki. Gainera, atalen erdia irakurri egin du, eta gogoratzen duenarekin eta estuasunetan betelana egiteko duen gaitasunarekin, ondo erantzundakoari hamarrekko batzuk gehituko dizkiola uste du. Alegia, primeran prestatu duela azterketa. “Ze kabroia!”, pentsatu du ikasleak aurreko urteetan irakasleak galdetu ez duen galdera irakurtzen duenean. Orduan konturatzen da ikasi duen laurdena eta irakurri duen erdia baino gehiago dela azterketa. Atal guztiak ondo ulertu eta ikasi dituenak, ordea, zalantzak zalantza, poliki erantzuten ditu galderak, batzuk zehatz eta besteak gutxi gorabehera. Irakaslearen notak erabakiko du bakoitzak zorte ona edo txarra izan duen.

Socratesen garaian bezala galdetzeak arrazoiak ematen du gaur egun ere. Irakaslearen *tortura* mota horrek egindakoa eta egin ez dena azaleratzen du, normalean, ikasle onaren zalantzak argitzen ditu eta *azkarregia* izan den ikaslea berriz ere prozesuaren abiapuntura itzultzen du. Kirolean sailkapenak zehazten du nor aritu den ondo eta nor ez, eta azken urteetan Realak lezioa ikasteko aukera bat baino gehiago izan duen arren, beti utzi ditu lanak egin gabe. Izan ere okerrera ez da azterketa ez gainditzea, baizik eta hurrengo azterketan ariketa mental berbera egin behar izatea, Bigarren Mailara ez jaisteko, taldean ez ezik klubean dauden arazoak konpondu gabe. Zorte onarekin ikasleak gainditu dezake ondo prestatu ez duen azterketa, eta zaila badirudi ere lortu ditzake Realak Lehen Mailari eusteko behar dituen puntuak. “Zergatik”, galdetu omen zuen behin irakasle batek. “Zergatik ez?”, erantzun zuen ikasleak. Azterketarik zailena norberak bere buruari egin behar izaten diona da.

Sailkapenak zehazten du nor aritu den ondo eta nor ez, eta azken urteetan Realak lezioa ikasteko aukera bat baino gehiago izan duen arren, beti utzi ditu lanak egin gabe.



kutxa

Ume jolasak

Goierriko ingurumariak hamaika txoko eskaintzen dizkigu naturan gozatu, ikasi eta jolasteko

Mendian ibiltzea eta egoteko atsegin dugunentzat batzuetan zaila egiten zaigu umeak eta gazteak motibatzea bertan aurrera egiteko eta ongi pasatzeko. Hori dela eta, hona hemen jolas batzuk gure jakinmina piztu eta arreta lantzeko. Irudimena erabili eta bakoitzak molda ditzala bere gogora. Ez da aditua izan beharrik, inguratzen gaituen aniztasunaz ohartzeko, nahikoa da behaketa eta interesa. Gaztetxoekin gidak erabil daitezke beraiek liburuan aurkitzeko aurrean dugunaren izena edo ezaugarri bitxiren bat irakurtzeko. Eta baita ere, prismatikoak nahi izanez gero hegaztiak ezagutzeko.

Arkaitza bihurtuturik. Pazientzia eta isiltasuna behar da. Geldirik egon behar eta gure ondoan gertatzen dena miatu. Haur txikiekin bi minutu nahikoa dira. Erreka ondoan, zortea izanez gero, agian martin arrantzalaren bat edo ur zozoa ikus ahal izango dugu. Igela edo zapoa errazagoa izango da. Eta artropodo ugari gure inguruan dantzan, armiarma, inurri, kakalardo eta abar luzea.. Basoan, begiak itxita eta lurrean etzanda egon gintezke. Entzumena eta ukimena lantzeko. Ikuspegi guztiz ezberdina izango du-



gu. Txorien kantua entzun, txantxangorria edo eskiasuaren karraka.

Altxorra: bakoitzak inguruan dituen baliabideekin altxorra osatu. Gauza ezberdinak aurkitu, harriak maraskilo eskola, hostoak. Inguruneak eskaintzen digun forma, kolore eta tamainak aurkitu.

Janari bila: fruituak bilduz jolasatu. Ezkurak, pagatxa, masusta, elorri zuriarenak eta arkakaratsarena, makina fruitu, jangarriak batzuek. Denon artean nork jaten dituen asmatu dezakegu. Landareen eta animalien harremanaz ohartuz.

Detektibeak: basoan edo zelaian aztarnak aurkitu behar dira. Basurdearen arras-

toa soroan, oin aztarnak lokatzetan, gorozkiak eta abar guk ondoren istorio bat osatzeko, noiz nola edo nork egin dituen. Irudimena landu.

Ikusi makusi: borobilean eseri eta bakoitzak ikusten duen landare edo animalia deskribatu behar du besteek asmatzeko.

Gaua ere, jolasteko une aproposa da. Ausartenak linterna eta grabagailu batekin joan daitezke gaueko bizitza eta hotsak jasotzeko. Alde ederra, egunez joan edo iluntzean. Izarrak ere behatu ditzakegu. Hartz nagusia eta hartz txikia erraz kokatuko ditugu baita ipar izarra ere.

Jolas hauen helburua ongi pasatzea da eta gure txangoak dibertigarriagoak izatea. Era berean, Naturarekiko errespetua eta zaintza landu. Eta beti ikasiko dugu zerbait berria, animatu hurrengo irtenaldian jolasen bat egitea. Ongi ibili.

JAKIN BEHARREKOAK

52 espezie berri Borneoko basoko bihotzean. 30 arrain, 2 zuhaitz igel, 16 jenjibre, 3 zuhaitz eta landare ezezaguna aurkitu dituzke ikerlariek.

Abiadura Handiko Trenari (AHT) buruzko mahaingurua antolatu zuten Kristina -Enea Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian, hilaren 7an. Roberto Bermejo, EHUKo ekonomia aplikatuko ikerzaile eta irakasleak ekonomikoki ez dela bideragarria argi utzi zuen. Bestalde arantxa Tapia Eusko Jaularitzako Garraio eta Herri Lanetarako sailburordeak arrazoi ahulak erabili zituen eta galdera batzuei erantzutea uko egin zien.

Praile Haitz 1 kobazuloa arriskuan. Iazko udazkenean aurkitu zuten Aranzadiko Zientzia elkarteko arkeologoen Deban. Margolanengatik azken hamarkadan Europan aurkitutako aztarnategi paleolitikoko garrantzitsuenak da. Sasiola harrobiko ustiaketa dela eta, leherketak arriskuan jarri dute aztarnategia. Kobazuloa oraindik ez dute Kultur Ondare Koalifikatua izendatu eta babesik gabe dago.

WEBGUNEAK

www.gazte-zientzia.com gazteei zuzendutako zientzia webgunea.

Jolas hauen helburua ongi pasatzea da eta gure txangoak dibertigarriagoak izatea.

Betiko, betirako

Maizpide euskaltegia

Atzorako, etzirako, betirako... Edo **atzoko, etziko, betiko...** erabili behar ditugu?

Bada, aurrerantzean, bigarren multzoko forma hauek erabiltzea gomendatzen dizuegu. Adibideak:

- ✓ **Atzoko** (*eta ez "atzorako"*) agindu nizun lantxoia ez dut egiterik izan, Manuel! Gainera, oso lanpetuta nabilenez, ez dakit **etziko** (*eta ez "etzirako"*) ere egin ahal izango dudan!
- ✓ **Betiko** (*eta ez "betirako"*) ez gaituk mundu honetan, Xilberio!

Gogoratu, bestalde, **beste balio bat** ere badutela aipaturiko hitzek (aurrekoek **aditz bati** laguntzen bazioten, hauek izen bati lagunduko diote):

- ✓ Albiste hori **atzoko egunkarian** ez bazetorren, **etzi**-koan etorriko da ziur asko.
- ✓ **Betiko kontuak**, Joxe!

Honek guztiak ez du esan nahi, halere, **noizko** galderari erantzuten dion **-rako** hori aurrerantzean erabili behar ez dugunik. Denbora, garaia... adierazten duten izenekin orain arte bezala jokatu dugu: mende, urte, hilabete, aste... hitzekin edo asteko egunekin, esaterako:

- ✓ Martxa honetan datorren **urterako** ere ez ditugu paperak eginda izango, gizona!
- ✓ Arkume-txuletak **astelehenerako** izango dituela agindu dit harakinak.

Berdin-berdin jokatu dugu urtean zeharreko opor edo jai-egunak adierazteko edo data konkretu baten berri emateko:

- ✓ Elizako lanak **Aste Santurako** bukatuta egotea nahi du On Zesareok.
- ✓ **Martxoaren 8rako** deitu duten manifestaziorako iaz baino jendetza handiagoa izatea espero dute.

Beraz, badakizue, norbaiti zuzendu beharrean bazarete, lasai asko zuzendu, bere onerako ez ezik euskararen onerako ere izango baita!



Zuzendu, behar izanez gero...

1. Aste Santuko oporrak noiz hartu behar ditudan biharko erabakitzeke esan dit nagusiak.
1. Etziko bilera Euskal Herriaren etorkizunerako oso inportantea izango dela esan du Arnaldok.
1. Betiko geratuko zara hemen nirekin, Kattalin!
1. Ez gaurko eta ez biharko! Autoa etzirako izango dun pronto!

Erantzuna: azkena kenduta, guztiak dira zuzenak.

AGNES IRIGOYEN
PODOLOGA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara

Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07

Jauregi
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

laza LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



Andramendi. Urbialde 2 - Beasain - Tel./Faxa: 943 88 96 17 - Haurtzaindegia: 685 73 36 88 / 665 73 97 50

E-posta: beasain@ikastola.net - www.beasaingoikastola.com



Haurtzaindegia (0-3), ludoteka eta jangela.

Urte guztian zabalik (abuztuan salbu).
Hezkuntza proiektuan txertatutako
proiektua. CAF-eko langileentzat
%20ko beherapena. Eusko Jaurlaritzak
familientzako bideratzen dituen
laguntzetako bitartekari.



Mundua irakurtzen, interpretatzen eta sortzen

erakusteko, euskaltzale eta eleanitz
izango diren ikasleak. Ingelesa 4
urtetik aurrera. Lehen Hezkuntza 4.
mailatik aurrera frantsesa.



Izateko sortu eta sortzeko izan.

Irakurketa-idazketa, matematika
eta oro har edukietan trebatzeaz gain
harremanetan eta sormenean eragiten
duen irakaskuntza. Egoten eta egiten
ikasteko.



Matrikula-kanpainako aurkezpen datak:

Otsailaren 26an
Arratsaldeko 6etan, euskaraz.
Arratsaldeko 7etan, gazteleraz.

Beste egun batean nahi izanez gero,
aldez aurretik deitu.
Aurkezpen egunean, haurtzaindegi
zerbitzua izango da.



Lontxo Ormazabal
Korta jatetxea
Gabiria

Osagaiak:

- Sorta erdia gari-zainzuri (esparrago berdeak)
- Tipula erdia
- Baratzuri ale bat
- Litro 1/4 barazki salda
- Basotxo bat esnegain
- Oliba-olioa
- Tipulina
- Gatza
- Piper hautsa

Tipula eta baratzuria zuritu eta fin-fin moztu. Olio bero-tan frijitu bigundu arte.

Gari-zainzuriak pusketa-tan ebaki eta zatirik gogorrena kendu. Ondo garbitu ur hotzetan. Tipula eta baratzuriarekin sueztitu. Barazki salda gehitu eta ondo egosten utzi. Ondoren dena

irabiatu eta beharrezkoa izanez gero txinotik pasa.

Ondoren, esnegaina gehitu, dena ondo nahastu, gatza eta piperra norberaren gustura bota.

Edalontzi txikietan mahairatu, oliba-olio pixka bat bota eta tipulinarekin apaindu ondoren.

Ukipen-lenteak

AHOLKUA

Miopia, hipermetropia eta astigmatismoa zuzentzeko gaur egun bi motatako lentillak edo ukipen-lenteak daude: gogorak eta bigunak. Hauek ez dute inoiz betaurrekoa ordezkatzeko, horregatik beti eduki behar ditugu betaurreko graduatuak prest. Ukipen-lenteak 10 bat orduz erabiltzea komenigarri da eta denbora hori pasa eta gero, begiaren atsedenerako betaurrekoak jantziko ditugu.

Gure begiek, beren metabolismo guztia egiteko eta, beraz, ongi funtzionatzeko, oxigeno kopuru bat behar du egunean. Oxigeno hau malkoen bidez iristen da begira. Gaur egungo ukipen-lenteak nahiz eta oxigenoa pasatzen utzi eta oso porotsuak izan, jantzita ditugunean, begira oxigeno gutxiago iristen da. Beraz, garrantzitsua da hauen ordu kopurua kontrolatzea, baita hauen garbiketa ere.

Ukipen-lenteak garbiketa produktu bereziekin garbitzeaz gain, garrantzitsua da hauen kutxatilla ere garbi mantentzea. Hau bi hila-beteen behin aldatzea ere komeni da. Guzti honi ikuste-higienea deritzo.

Mota batekoak edo beste-koak izan, gaur egun ikuste-higiene ona edukiz gero, gehienok erabil ditzazkegu ukipen-lenteak.



Ainhoa Arce
Argi optika

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua



© 943 88 77 26 ALTZAGA



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



680 641 401

676 952 968



Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak

Goierritarra



goierriko

hitza

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri**tarra 25 euro Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐ **hitza** 62,5 euro

☐ **Goierri**tarra + **hitza** 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behea, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: **902 82 02 01**

Goimen Elkartearen apustu berria: simaur-konposta



Simaur-konposta, antzinako teknikak egunerokotasuna hartzen du

Ingurugiro jasangarriagoaren eta gizarte eredu berriaren arteko oreka bultzatu nahian, baserrietako lanak arintzera begira, simaurrari irtenbide berria aurkitu nahi dio Goimen Elkarteak, antzinako teknikak gaurkoratuz: simaur-konposta. Baserri inguruko zelaiak ongarri maila altua daukatela dio Goimenek, “eta gauza guztiak bezala, simaurra ona da baina be-

re neurrian”. Lur osasuntsuagoaren alde, simaur-konposta egitera animatu nahi dituzte Goierriko baserritarrak eta artzainak. Goimenek bera, simaur-konposta egin du Olaberriko Udalarekin, eta Fraisoroko laborategikoekin proiektu pilotoa eginez. Simaur-konpostaren onurez hitz egiteko, hitzaldiak antolatuko ditu Goimenek.



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitarkeoak

Legazpi kalea, 3
ORDIZIA
☎ 943 16 03 04

Goierriko Landagarapen Programa Jasangarriaren barruan aurreikusia du Goimen Elkartek, Simaur-konposta egin eta erabiltzeko proposamena, besteren artean purina edo simaurra erabileraren osagarri edo ordezkari, lurrarekiko eta baserriarekiko funtzio anisatasunean dituen abantaila eta onura barne. Aurtengo uda - udazkenean, papere-tik zelaira eraman dute proposamena eta Olaberriko Udalak utzitako lurretan, simaurra konposta bihurtu dute. Simaur-konposta egin eta erabiltzeko deia egin nahi dute Goierriko baserri-tarren eta artzainen artean, ingurugiro jasangarriago baten alde. Aldi berean, Europatik etor daitezkeen arauak ere aurre hartu nahi diote. Goimeneko Manex Aranburuk azaldu dizkigu aukera honen zergatiak.

“Herri txikietan hazkuntza ematen da eta herrien Hazkuntza hau periferietan ematen da. Askotan, hiriarren eta baserriaren arteko txokea sortzen da. Baserri-tarrak premia batzuk dauka eta hiriak eskari batzuk dauka, usaina dela... Horiek ekiditzera begira eta gizarte eskari batekin bat egiteko, bioaniztasun eta ingurugiro orekatuago bat izateko, inguruarekiko errespetutsua, nekazaritzaren jasangarritasunari begira, irtenbiderik eraginkorrenetarikoa simaur-kopostarena ikusten zen”, dio Manex Aranburuk. “Batetik azpiegitura inbertsio baxua, ku-deaketarako konplexutasun eskasa, eta hedagarritasun maila zeuden. Bestetik jar-duera beretik ondorioztatzen diren abantailak natur



Ongarri izatetik ongarritsu izatera

Guztiak dauka bere neurria eta ongari organikoek, simaurrak edo purinak kasu ere bai. Gauza gehienekin bezala, neurriz kanpo botaz gero, hasieran ongari dena, hondakin bihurtu baitaiteke. Goimenek adierazi duenez, gaur egungo baserriaren bizimoduan, gero eta simaur gehiago sortzen da, eta aldi berean, bertako zelai eta soroetatik gero eta jangai gutxiago aprobetxatzen da, hein handi batean janaria kanpotik ekartzen delako. “Ganaduaren hobekuntza genetiko altua eman da ekoizpenari begira, baserrian errentagarritasuna areagotzeko edo garai bateko bizi mailari eusteko, abere kopurua areagotu egin behar izan dute, eta hauek mantentzeko baserriko eskulana jaitsi egin da. Beraz, baserriarra gelditzen da, bera bakarrik, ganadu gehiagorekin eta ganaduaren premia energetiko handiagoarekin, elikadura aldetik, kantitate gehiago behar da. Bertako sorak, belardiak... bigarren mailan gelditu dira eta lehentasuna eman zaio kanpotik etortzen den pentsu, arta berde eta siloari. Hau da, abereak elikatzeke atera beharreko elikagaiak zure lurretik ez badituzu ateratzen eta gainera, animaliei kanpotik ekarritako elikadura ematen badiezu, abere horren simaurra berriz zure lurretan botatzen baduzu... egiten duzuna da, zure lurretik nutrienteak ez atera eta gainera gehiago aportatu. Beraz, gain ongarriketa ematen da, baserriko lurren desoreka nabarmenduz. Gain ongarriketa horretatik lurraren salinizazio gehiegizko bat etor daiteke, maila batean kaltegarri bihurtzeraino, eta neurri haundi batetan produkzioaren kalterako”.

Fraisoroko azterketa batetan jasotakoaren arabera: “garai bateko ganaduak, duela 10 bat urte, egunean 50-55 kilo kaka egiten bazuen, gaur egun, 90-100 kilo egiten dituela jasotzen da. Ondorioz pixa putzuak gainezka egiten du eta baserriarra hauek hustu beharrean gertatzen da”.

Arriskuak

Ongariak bere neurrian, eta bere garaian aplikatzea behar du, horretarako momenturik desegokienak, eguratsarekin lotuak izaten dira. Eguraldia oso kontuan hartu beharreko elementua izaten da, usuriak erreketara joan ez daitezen. “Euria denean, ongariak garbitu eta errektara joan daitezkeelako, lurak horiek aprobetxatu ezin da, elurra denean, beste horrenbeste. 7 graduz azpitik, belar hazkuntza geldituta dago eta elikagai horiek ez ditu momentuan xurgatzen landareak, hauek bolatilizatu edo lur azpian lixibiatu-rik gal daitezkeelarik. Ur kopuruak lurrean ongariarekin bat oxigenazio falta ere sorrazten du, mikro organismoan eta mikro faunan ere eragina du, Zizareak-eta ito egiten dira”.

Autowag




☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Simaur-konpostaren prozesua

6 hilabete behar dira simaur-konposta egiteko. Goimenek berak, teorian jasotakoa praktikara eraman du, Olaberriko Udalak utzitako lurretan. Ardi simaurra eta behi simaurra erabili dute, lastoarekin eta garoarekin nahastuta hurrenez hurren. Dena den, lau pilatan banatu dituzte, 20 m³ simaur multzotan, 2 metroko zabalera, 1,40eko altuera eta 8 metroko luzera zuten pilatan banatuak.

Ondorengo lerrootan, Goimeneko Manex Aranburuk eman digu simaur-konposta egiteko irakasgaia. “simaur-konpostak garai batean baserrietan ateratzen zen simaur pila gogorazten du. Hemen garrantzitsua izaten da pilaren forma, azalaren gehiena airearekin kontaktuan egotea...”.

Simaur-konpostak bi elementu nagusi ditu: ganadu simaurra, gehienetan ikuiluetako azpiekin nahastuta. Txirbila, garoa, lastoa... izan daiteke bigarren elementua. Hauek, lasto, laharak, garoak, kimatutako adarrak... txikituta, xehatua botatzea komeni da. “Simaurra bakarrik ez da konposta. Simaurra bere kasa, konpaktoegia eta bustiegia da. Beraz, hezetasun puntu bat jaitxi eta barnekaldean haizea izatea ahalmenduko dion gai bat bilatu behar da. Hau da, estrukturantea behar du. Normalean elementu begetalak izaten dira, gorputza emango diona simaur pilari. Lastoak-eta, urak edo pixak xurgatu egiten ditu, eta solidoa denez, eta gogorra denez, simaurraren barrura haizea sartzea ahalbidetzen du. Horrekin lortzen dena da, simaurraren deskonposaketan parte hartzen dutenak mikro organismo aerobikoak izatea eta bultzatzea. Hau da, simaur pila berotu egiten da, beraiek ugaltu egiten dira, nitrogeno organikoa aprobetxatu egiten da. Simaurra berotzen denean, belar haziak, txarrak ere bai, hiltzen dira. Simaur pila 70 gradutara irits daiteke. Han ez dago elementu bizirik. Hor higienizazio prozesua ematen da. Simaur pila 60 gradura iristen denean, komeni izaten da simaur pila hori berriz ere aireztatzea. Makina bolteatzaile - iraultzaile batekin oso erraz egiten da”.

Esperimentuak

Behin pilaren tenperatura 30 gradura egonkortutakotan, ardi simaur pila batean eta behi simaur pila batean, Kaliforniako zizare gorriak sartu zituzten (eisenia foetida), zizare konposta edo bermikonposta egiteko. Hau da, prozesua bere horretan utzi beharrean, zizareei utzi, gai horien gain aktuatzen. Zizareak utzitako konpostak, elementu biotiko gehiago dauzka, prozesua ere azkarragoa da, eta gaia bera ere arinagoa da”, azpimarratu du Goimeneko teknikariak.

Bitxikeriak ere izan dituzte simaur-konposta egiten ari ziren garaian. “Ardi simaurrak pH-a oso altua eman du, batez ere kare kopuru altua zeukalako. Eta zizare gorria ez zen hain ondo moldatzen eta gertatu da, bertako lur zizarea (Lumbricus terrestris) sartu dela, hau desplazatuz”. Beste bisitari batzuk ere izan dituzte: “negu hotza izan dugun egunetan eta simaur piloak beroak zeudenez, orkatza edo basurdea gustura egon da simaur pilan etzanda”.



baliabideekinko eta baserri-tarren lanekiko”, gaineratu du ordiziarrek.

Horrekin batera, beste arrazoi bat ere badu Goimenek, simaur-konpostaren alde egiteko. “Gauza guztiak bezala, simaurra ona da, baina bere neurrian. Gehiegi erabiliz gero, hondakin bihurtzeko arriskua dago eta gaur egun zelai asko, gainongarritzeko arriskuan daude”, zehaztu du.

Simaur-konpostaren aukera

Goimenekoek, garbi daukate, konposta, egun sarrien ematen den purin banaketa sistemarekin tarte-katu daitekeela bien arteko osagarritasuna bilatuz. “Adibidez, purina udaberrian erabiliz, eta simaur-konposta, udazken-neguan banatuaz. Baserrian ganadu kopurua handitu egin da, pixa putzua txikia gelditu da kasu askotan eta maiztasun handiagoarekin hustu behar izaten da depositua. Ideala litzateke, udaberrian, belarrak hazkuntzarik handiena duenean, purin modura erabiltzea eta udazkenari begira, belardien hazkuntza gelditzera datorrenean, udaran zehar konpostatzen egon den ongaria botatzea”.

Ezkerreko koadroan, simaur-konposta egiteko prozesuaz hitz egiten digu Manex Aranburuk. “simaur-konposta erabilia, ongariak modu eskuragarriagotan dauzkagu, eta hau zabaltzerakoan, berehala integratzen da belardietan. Simaur konpostarekin hiru egunean prest dago belardia bertan ganadua larratzera botatzeko. Belardian zabaltzerakoan, simaurra baino arinagoa da eta simaur banatzailearekin zabaltzen denean, traktoreen gurpilek ez dute iristatzen, maldan finko mantentzen dira, makinistarentzat arriskua ekidinez. Simaur-kon-

postaren nitrogenu kopurua txikiagoa da eta modu geldoago batean joaten da asatzen lurrean”.

Konposta banatzera begira, parametro gutxiagok mugatzen dute, ez dago eguraldiarekiko horrenbeste menpetasunik, “gai organikoa mineralizazio prozesu geldoan sartu duzu, humusaren bitartez, eta egiten duzun aportea zenbait ongarri unitateetan, askoz ere txikiagoa da. Simaur-konpostak mineralak eskuragarri jartzen ditu lurrean, lurarekin bat egiten. luraren iragazkortasuna hobetu egiten da, eta luraren egitura ere bai. Bertan dauzkagun mineralak, kaltzioa, magnesioa... eskuragarri jartzen ditu”, gaineratu du Goimeneko teknikariak.

Simauro-konposta egiteko garaian, simaur-pilak aireztatzea oso garrantzitsua da, horretarako pila harrotu behar da. Jiratu edo lekuz al-

datzea bilatzen delarik. Hau bera hezetasun asko duenean egin ohi da, honekin batera estrukturate gaia areagotuz, K/N indizea egokitztea begira. Lan horretarako, iraultzeko makina izaten da egokiena eta lana errazten duena, leku gutxiengo bat okupatuaz. Simaur-konposta egiteko Goierriko baserriarrek interesa azalduz gero, Goimen, iraultzeko makina erosteko prest dago, baserriarrei zerbitzu hau eskuratu eta ahalbidetzeko.

Zestoako Urko Mager aritu da Goimenekin bat simaur-konposta egin, aholkuak eman eta piloak kudeatzatuz, Tomas Aldasoro makinistarekin elkar lanean. Fraisoroko laborategiekin ere harremanetan izan dira Goimenekoak, luraren azterketak egin eta aholkularitza eman baitiete, emandako laginen analitikak egitearekin batera.



Ongarriaren higienizazioa

Behin simaur konposta eginda gero, gustura daude Goimenekoak emaitzarekin, nahiz eta ondorioak jasotzeko oraindik goizegi den. “Analitikak egin ditugu, konpostaren laginen gain, Beasaingo Atari Eder baserriko lur sail batean eta Olaberriko udalak utzitako hainbat lursailetan ere bai. Orain ongarria bota eta ondorioak ateratzeko daude, horretarako denbora bat behar baita”, zehaztu du.

Dena den Manex Aranburuk, garrantzirik handiena, ongarriaren higienizazioari ematen dio. “Asko eta asko kexatzen dira, purina banatzen den lekuetan, nahi ez diren belar asko ateratzen direla. Uztarau adibidez. Gauduari pentsua ematen zaionean, pentsu hori egiterakoan bertan egon ohi dira interesatzen ez zaizkigun belar horiek, eta bertan bizirauten dute, hazi bezala. Simaurra edo purina egindakoan, aktibatu eta lurrean banatzen direnean, lurra ongarrituta, nahi ez ditugun belarrak ernetzen dira, eta ugaltzen joaten da. Eta hori ere baserriarrentzako lana da, askotan, elementu kimikoak erabiltzera eramaten dutena, gainera. Hau guztia konpostarekin ebitatu daiteke, higienizazioa eman delako eta elementu patogenoak desagertu egin direlako, interesatzen ez zaizkigun belar txarren haziak hilda baitaude”, argitu du.

Hitzaldiak

Goimenek eskualde mailan hitzaldiak antolatuko ditu baserriarrei eta artzainei simaur konposta eta zizare konposta nola gestionatzen den ezagutarazteko, abantaila eta onurak azalduz, azterketaren emaitzak analizatuz, eta abar. Nekazaritzaren ekonomia ikuspegitik, lan kargak, sistema batek edo besteak behar izaten duen dedikazioa, inbertsioa, eta eragozpenak aztertuko dituzte bertan. Honekin, simaur konposten laginak banatzea ikusten da, zizareak ere interesatuen artean banatuko direlarik. Gai organikoa eskutan kalitatezko parametroak azalduko dira, usaina, kolorea, textura, hezetasuna...



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxes: 943 88 48

Aseguruen konfiantza

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosgi, 1- behea
Tfnoa.: **943 88 86 20**
Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxes: **943 88 91 18**
LAZKAO



Iñaki Amundarain korrikalaria eta Sahararen aldeko lasteketaren antolatzailea:

"Aldarrikapen eta elkartasun ekintzaz gain, goiz pasa polita egiteko aukera ere izango da"

Sahararekin lotura duen herria da Ormaiztegi. Horren lekuko da herritar talde batek otsailaren 25erako antolatu duen Sahararen aldeko lasterketa. Talde horretako kide da Iñaki

Amundarain, iaz Saharako maratoian 2. postua lortu zuen ormaiztegiarra. Horrez gain Behobia-Donostian lehen goierritarra izan zen, Lazkaoko San Benito ikastolan irakasle den, korrikalari 'berezia'.

**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

**PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

a u l i a
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66
Aulia-enea
LEGORRETA

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ 24 orduko asistentzia
- ✕ e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Iaz, Saharako maratokia parte hartu eta bigarren egin zenuen.

Hura ezberdina da. Ormaiztegik beti izan du Saharako herriarekin lotura eta Salem Hachem Barek, duela 2 urte hil zen, Ormaiztegiko Gurutze Irizarrekin ezkondua. Ormaiztegiko Udalak hango herrixka batekin anaikidetatasun akordio bat egin dauka, eta erabaki zuten Ormaiztegitik ordezkari bat bidaltzea. Zinegotziren bat edo beste eta korrikalariaren bat, aldarrikapen gisa, Saharako maratokia korritzeko. Bat joango bestea joango, azkenean niri joatea egokitu zitzaidan. Bost bat egun han pasatzea eskatzen zuen eta inauteri ingurua zenez, Ikastolan jaiegunak geneuzkan, eta egun gehiegi galdu gabe, joateko aukera neukan.

Pixka bat prestatuta joan nintzen, baina gehiegi ez. Baina Saharako maratokia ez da maila aldetik oso gorenekoa. Han jendea, elkartasunagatik ateratzen da eta ez zegoen korrikalari onegirik. Ez zen lehia zeukan maratoi horietako bat. Elkartasuna adieraztera joandako jendea zen. Saharako maratokia bigarren egin duela irakurrita, zerbait ematen du, baina ez.

Ondoren, Behobia-Donostian, lehenengo goierritarra izan zinen, sailkapen nagusian, 25.

Ibiltuta eta saiaturik lortu nuen. Nik mutikotan, eta beranduxeago ere bai, soinketa suspentitu egiten nuen. Pottoloa nintzen, eta askotan lagunei segitu ezinik ibiltzen nintzen. Azkeneko urte pare honetan, benetan saiatu naiz korrika

Sahararen aldeko lasterketa otsailaren 25ean

Ormaiztegin prestatutako zirkuituan 3 itzuli eginez, 10 kilometroko ibilbidea izango dute Sahararen aldeko lasterketako partaideek. Nahiko ibilbide laua da. Izen-ematea aurretik www.sahara-cross.com web orrian egitea komeni da, baina, egunean bertan ere egin daiteke. Lasterketa otsailaren 25ean izango da, igandean, goizeko 11:00etan. Lasterketa eguna ere bilatua izan da, Saharako Maratokia izaten den data inguruan.

Bildutako dirua Saharara bideratzeko izango denez, irabazleentzat diru-saririk ez da izango. Sari bezala bertako hainbat produktu emango dira eta zozketak ere izango dira.

Ormaiztegiar taldetxo bat ari da Sahararen aldeko lasterketa antolatzen. "Batetik, ekintza sinboliko bat izango da, aldarrikapen eta elkartasun ekintza bat. Baita ere, inguruko jendeak goiz pasa polit bat egiteko aukera. 10 kilometro horiek osatu ezin ditzaketenentzako, beste ibilbide alternatibo bat ere egongo da, kilometro bat ingurukoa, plazari bi itzuli. Esperientziarik ez daukagu eta ez dakigu nola aterako den, ez dakigu zenbat jende inguratuko den, etortzen den jendea inguratuko delakoan daude. "Ez dago beste karrera herrikoirik, inguruan, eta Sahararen aldekoa izanik, euskal gizartearen geroz eta oihartzun handiagoa dauka Sahararen aldeko elkartasunak, eta uste dut biak lotuta, jendea bilduko dela eta ea guk ere ahalik eta ondoena erantzuteko aukerarik daukagun. Eguraldiak izugarritzko aldea du festa polita egin edo ez egin. Otsailaren amaieran edozer gauza gertatu liteke, eta eguraldi ona eskatu beharko dugu".

Ormaiztegiarren asmoa ez da aurtengo lasterketarekin amaitzen, gehiago egiteko asmoarekin daude, "Saharako egoera aldatzen baldin bada ere, jarraitzeko asmoa izango genuke, izena aldatu behar baldin bazaio ere".



bizkor samar egiten. Ia berrogei urterekin konturatu naiz

Nola hasi zinen korrika?

Pixkanaka. Lagunartean be-

ti joaten ginen mendira edo bizikletan ibiltzera, baina estutu gabe, sekula. Baina mendira joateko denbora gehiago behar da eta korri-

ka, lanetik irten eta bizkor egiten da. Horrelaxe hasi nintzen. Lagunartean hasi, bizkorxeago egin dezake-dala ikusi eta saiatu... eta



Arriak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Saharako egonaldiaren testigantza

Zer moduzko esperientzia izan zen Saharakoa?

Korrikari dagokionez, eguraldiaren baitan dagoen maratoia da. Gu joan gine-nean, oso eguraldi atsegina egin zuen. Irteeran 12-14 gradu eta ailegaeran, 21. Ibilbideari dagokionean, hondar zatiak ez dira asko, hauetan hondartzan bezala gehiago kostatzen da, baina, gehiago da lur gogorra bezala. Alde horretatik aparteko eragozpenik ez du. Haizea oso handia sarri izaten da eta haize horrek hondarra harrotzen du eta aurreko urte batean izugarrizko komeriekin ibili ziren. Haize bolada hasi, bakarren batzuk bidean galdu, haien bila ibili beharra... Irteeran, denok behartu gintuzten, manta termiko bana eta ura eramatera. Agindua geneukan, horrelako haize zakarra hasiz gero, ibilbidean, geunden lekuan gelditu, mantarekin bildu eta zain gelditzeko. Bestela, korrika joanez gero, oso erraza baita galtzea.

Bidaiaari dagokionean, korrika egitea baino gehiagoren, kanpamentuak eta bertako bizimodua ezagutzeko. Joan eta kanpamentuak ikusteko. Oso une gogorra izan zen. Ezertxo ez dagoen lautada hartan, ez mendirik, ez zuhaitzik, ez landaredik... Kanpamentuaren bueltan bidoiez egindako borobil batean ahuntzak edukitzen dituzte. Ahuntz horiek ez daukate ezer jateko, zaborrak jaten dituzte. Hango etxeak... hango bizimodua zeinen zaila eta tristeza izan zitekeen... zirrara handia eragin zidan. Pena ematen duen sarrera bat izan zen.

Familietan egon ginen, bost bat lagun familia bakoitzarekin. Bertako jendearekin hitz egiteko aukera ematen zigun, gatzeleraz



asko moldatzen dira-eta.

Beraiekin egonda, lehenengo momentuko zirrarar arindu al zitzaizun?

Ez. Inpresio horrek segitu egiten du oraindik. Oso oso bizimodu gogorra daukate. Bizimodu normalerako, une honetan, egoera horretan, itxaropenik gabeko gizartea bezala ikusten da. Hemendik bidaltzen diren laguntzak elkarren artean banatu besterik ez dituzte egiten. Osasun aldetik, zaharrenak zaindu, umeei eskolak eman... hori bai, baina, bizimodu normaleko gizarte bat ez dago. Badago jendea, borondatezko lanik egiten ez badu, egunean zehar zereginik ez daukana. Eta hori 30 urtean zehar. Hantxe, zain, gora-beherak noiz konponduko, ez aurrera eta ez atzera.

Mendebaldeko Saharatik alde egin zutenean, ezer gabe joan ziren, ihesi joan ziren. Gu hara joaten garenean, haiei zenbat gauza falta zaizkien pentsatzen

dugu. Ur korronterik ez daukate, elektrizitaterik ez... buztinezko etxeak dituzte... Haiek berriz, aipatzen dutena da, zenbat gauza egitea lortu duten. Ezer gabe iritsi eta etxeak egitea lortu dute, komunak egitea... eskolak muntatu dituzte, ospitalak ere bai... haiek zenbat gauza eta zenbat lan egin dituzten gorai-patzen dute.

Politikoki konponbiderako ilusiorik edo esperantzarik ikusten al zaie?

Nik bost egun pasatu ditut eta ez da erraza bost egunean eta bertako hizkuntza jakin gabe, gauza horietaz guztietaz ondo jabetzea. Nik entzuten nienaren arabera, politikoki itxoitea oso luzea egiten ari zaio jende-ari. Gerraren amaieran Nazio Batuen Erakundeak errosoluzioa egin zuen autodeterminazioaren erreferenduma antolatzeke, urte asko joan dira. Jende asko itxoite horretan aspertuta dago. Orain arte lortu ez

baldin bada erreferendum hori egitea, nahiz eta NBEk errosoluzio hori egina egon, zer gertatu behar du benetan erreferendum hori egiteko? Marokko ezezkoan dago eta presio handiagorik jasotzen ez duen bitartean, hark ez du egingo.

Jende askok dio, ez aurrera ez atzera daudela. Hortaz, populazioaren zati batek dio aurrerabiderik ikusten ez bazaio beste mota bateko neurriak hartuko dituztela, beharbada berriz ere indarra erabiltzea. Beste batzuk ez. Barruan ze portzentaje dauden ez dakit.

Beraz, etorkizuna ez duzu oso argi ikusten.

Saharan egon nintzenean somatu nituen beste gauza batzuk izan ziren: alde batetik, beren gizartea aurrera ateratzeko gogo handia eta jendearen inplikazioa gauzak antolatzen eta aurrera ateratzen. Baina beste alderdi batetik, baita ere, tarte-entzuten ziren gauzen arabera, bitxia da, 30 urtean nazioarteko laguntzaren baitan bizi den gizartea dela. Adibidez, gazte bat, ikastera kanpora joaten da, itzultzen da kanpamenduetara eta kanpamenduetan lagundu dezake, beharbada bai, beharbada ez, baina profesionalki garatzeko inolako itxaropenik ez dauka. Tartean izaten omen da jendea, ez itzultzea erabakitzen duena, kanpoan lan egin eta bere ingurukoei diru aldetik hobeto laguntzeko. Imajinatzen dut nik, horrek barruan tirabirak sortuko dituela. Guztiz dependientea den gizartea delako eta bere kasa aurrera ateratzerik ez daukalako. Errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira eta beraien herrialdera itzuli nahi dute. Besteen baitan bizi den gizartea da. Badago jendea, gainera, besterik ezagutu ez duena.

bai, iaz, oporren ondorenean, gogor saiatu nintzen. Asteazken bost egunetan joaten nintzen korrika egitera.

Ordutik lasaiago nabil. Bestela ezinezkoa da. Horretara bakarrik arituz gero, segiko duzu entrenatzen eta beste probak korritzen, baina beste gauza batzuk ere izaten dira, lanekoak edo norberari gustatzen zaizkion beste zaletasun batzuk. Orain utzita daukat, beraz, horregatik esaten dut ez naizela korrikalari-korrikalari horietakoa. Gauza bat da aire librean batean eta bestean ibiltzea eta tarte batean serioski saiatzea.

Ez zara animatu aurrera segitzea?


Ez. Gainera, aurrera segiz gero, dedikazio handia eskatzen du era horretara ibiltzeko. Eta hori egiteko beste gauza batzuk alde batera utzi behar dira eta nik ez daukat hori egiteko asmorik.

Aurten ere prestatzeko asmorik ba al daukazu, Behobiari begira?

Igual bai eta igual ez, segun ze gogo daukadan. Garbi dago, hemendik aurrera hobeto ez dudala egingo, berrogei urtera iritsi naiz...

Izkutuan zeneukan kualitatea atera duzu? Berrogei urterekin deskubritu al duzu?

Beste askok ere dedikatuz gero, berdin-berdin egingo lukete. Zenbateraino saiatzen zaren aldea dago.



“Orain lasaiago nabil. Horretara bakarrik arituz gero, segiko duzu entrenatzen eta probak korritzen, baina beste gauza batzuk ere izaten dira, lanekoak edo norberari gustatzen zaizkion beste zaletasun batzuk”.

Droga antzeko zerbait dela esaten da, hasi eta ezin utzi...

Horrekin konturatu naiz aurten. Batzuk beti entrenatu eta entrenatu ikusten dituzu eta beste lanik ez ote daukaten pentsatu izan dut. Baina aurten oso sasoiko jarri naiz eta konturatzen zara, gorputza sasoi puntu batean edukitzen ohitzen zarenean, pixka bat eskatu bezala egiten duela horrela egotea. Bestetik, gezurra badirudi ere, korrika egitea ez zait hainbeste gustatzen. Nahiago izaten dut mendira joan edo bizikletan ibili. Gertatzen dena da, kirol horiek denbora gehiago eskatzen dutela.

Aizkorriko maratonia goierritar askok prestatzen du. Ez al duzu tentaziorik izan?

Aurten irailaren 23an izango da, udako oporren ondoren eta momentu batean burutik pasatu zitzaidan. Baina izena emango banu, opor guztiak horretarako entrenatzen pasatuko nuke eta azkenean arriskua zegoen betebeharrak edo lan bezala hartzeko. Nik uste dut, iruditzen zaidanean, iruditzen zaidana egiten jarraitu behar dudala eta ez dut ize-nik emango. Beldurra ere ematen dit, fuerte ibiliz gero, gorputza gehiegi behartu eta gehiegi arriskatzea. Momentuz ez dut egingo. Ez naiz benetako korrikalari horietakoa.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Tel.: 943 88 43 84 Oriamendi, 30 BEASAIN



xetai www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Garaia delako, BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!



Euskal Herriak Bere Eskola:

‘Euskara erabiliz, euskara plazaratu’

Martxoaren 3an, Ordiziako plazan, ‘Euskara erabiliz, euskara plazaratu’ lemapean festatxoa egingo da

Ordiziako hezkuntzaren diagnosia egin du Euskal Herriak Bere Eskola taldeak. Ondorioak azaltzeko aitzakian, martxoaren 3an, arratsaldeko 6etan, Ordiziako plazan, festatxoa egingo dute, ‘Euskara erabiliz, euskara plazaratu lelopean.

“Euskara ezagutzea, eskubidea. Nazioarteko adierazpen ezberdinek, berezko hizkuntza ezagutzea lurralde horretako herritar guztiek duten eskubidea dela adierazten dute. Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza da. Beraz, eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar ditu”, aldarrikapen hori egiten du Euskal Herriak Bere Eskolak. Aldarrikapen horretatik abiatuta, ekimen ezberdinak ari dira burutzen herri ezberdinetan.

Goierriren kasuan, Ordizian bakarrik dago Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) taldea eta herrian bertan ari da lanean. ‘Hezkuntzaren egoera Ordizian’ diagnosia egin berri dute eta martxoaren 3an, azalduko dituzte emaitzak. Hurrengo orrian duzue diagnosi zehatza. Ondorio orokor bat nabarmendu du Ane Juanes, EHBEko kideak: “D eredua da eredu bakarra baina kezka nagusi bat badago: eskoletan euskara erabiltzen dute baina kalean ez da hori nabari”.

Hutsune hori aldatzeko, curriculum aldatzea proposatzen du EHBEk. “Eskaintzen den hezkuntza mota horretan, ikusten da, nahiz eta D eredua egon, ez dela erabiltzen. Guk egiten dugun aldarrikapena da, ez dela posible Estatu espainiarren eta fantziazarren ematen diren gaitegi berdi-



Martxoaren 3an, festa

Euskal Herriak Bere Eskola taldea egiten ari den lana azaldu eta Ordizian egindako diagnosiaren berri emateko, martxoaren 3an, arratsaldeko 6etan, Ordiziako plazan festatxo antolatuko du EHBE-k. ‘Euskara erabiliz, euskara plazaratu’ izango da festaren lema. “Erabilerak bultzatzeko lema nahi genuen”, dio Ane Juanesek. Haurrek marrazkiak edo kartelak egingo dituzte lema horren inguruan eta guztiak erakusgai izango dira martxoaren 3an. Horrekin batera, kantutegia banatu eta kantuan arituko dira, festa giroan. Azkenik, diagnosiaren ondorioak azalduko dituzte.

Argazkian: Ane Juarez Euskal Herriak Bere Eskola erakundeko kidea.

nak Euskal Herrian ematea. Eskatzen dena da, Euskal Herriari begira eta Euskal Herriatik sortutako curriculum sortzea. Honen inguruan Jaurilaritzan eta leku denetan eztabaidatzen ari gara. Baina gauza da, be-

raien asmoa curriculumari begira eta hezkuntza ereduari begira moldaketa bat ematea dela. Guk esaten dugu moldaketa hori ez dela nahikoa, eredu berria sortu behar dugula”.

Beste kezka bat ere ba-

dute, etorkinei begira. “Administrazioari erantzunkizun gehiago eskatzen zaio, adibidez, etorkinak euskalduntzeko gaien. Harrera Gelak sortu dituzte, baina baliabide eskasia dagoela esaten dute”.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnakia 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate

O
-




SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta

ORDIZIA


☎ 943 88 72 76



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Hezkuntzaren egoera Ordizian

Euskal Herriak Bere Eskola (EHBE) lan taldea, Ordizian duela bi urte sortu zen. “Gure helburua Ordiziatik hasita Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa lortzeko lanean laguntzea da”, diote EHBE-koek. Horretarako, herriko hezkuntza egoeraren berri eza-gutu nahi izan dute lehen-dabizi. Ordiziako hezkuntza sistema osoaren diagnosia egin dute, hau da, haur hezkuntzatik unibertsitaterainoko azterketa “xumea egin dugu, argazki bat besterik ez da. Hala ere, Euskal Herri osorako daukagun aldarrikapen taulak Ordizian duen egoera ezagutzeko nahikoa eta etorkizunean Ordiziako EHBek egin nahi duen lanaren abiapuntu garrantzitsua izango da”, diote ordiziarrek.

Aurrera begira, “poliki-poliki hezkuntza sistema propioaren alde dauden indar guztiak aktibatu nahi ditugu, herri mugimendu bizia berri ere martxan jarritz. Herritarren beharrak aseko dituen hezkuntza ereduaren alde indarrak batuz eta behar den norabidean jarritz”, gaineratu dute.

Ondorengo lerroetan, EHBE-k Ordizian egindako diagnosiaren emaitzen berri eman digute.

Haur eskolak

EHBek ezinbestekotzat jotzen du herriz herri haur

eskola euskaldun, herritar eta hezitzaileak izatea. “Guk bultzatu nahi ditugun haur eskolen funtziona moldea euskara hutsezkoa izan behar da, etorkizuneko belaunaldien ama hizkuntza euskara izatea ezinbestekoa dela uste dugulako, Euskal Herriaren euskalduntzea helburu hartuta”.

Ordiziaren kasuan, EHBek jaso dituzten ekarpenen arabera, Ordiziako Haur Eskolan erabiltzen den hizkuntza euskara da, euskalduntzeko helburuarekin. Horrekin batera, “haurraren garapenari jarraituz esan dezakegu, hezitzailea ere badela, bertako langileek egindako Curriculumak dutelako”.

Eskolak euskaldundu

Euskal Herriak Bere Eskola taldearen arabera, “euskara eskubidea izanik, derrigorrezko hezkuntzaren helburuak euskalduntzea behar du izan. Hau da, derrigorrezko ikasketak amaitzen dituen 16 urteko gazteak euskaraz jakin behar du eta euskaraz aritzeko gai izan behar du bizitzaren arlo guztietan”.

EHBek emandako datuen arabera, Euskal Herrian, eskoletan ikasten ari diren ikasleen %62 ez da euskaldunduko; hau da, 268.354 ikasle. Bataz beste, urtero, euskaldundu gabeko 14.908 euskal ikaslek

amaituko dituzte beren ikasketak. Araba, Bizkaia, eta Gipuzkoan biltzen dira euskaldunduko ez diren ikasle horietatik gehienak: 154.161 ikasle.

Dena den, tokian tokiko errealitatea ezberdina da eta Ordiziako errealitatearen azterketa eginez, Ordiziako EHBek dioenez, “lan handia egin dela eta gaur egun derrigorrezko hezkuntzako eredu bakarra D eredu dela. Honetaz gain, eskolak lanean ari dira hainbat egitasmorekin”. Hala ere, aurrera begira badute erronkarik: “besteak beste, erabilpenaren inguruan kezka handia somatu baitugu. Gaur egungo Ordiziako ikasleek badakite euskara hitz egiten baina erabiltzerakoan hutsune nabarmenak agertzen dira. Baita ere herrira etorri eta etortzen ari diren etorkinen euskalduntzeari dagokionez, baliabide falta ageri da”.

Curriculumak

EHBetik Euskal Curriculumaren aldeko apustua egin da. “Ez da gauza bera euskarazko irakaskuntza eta euskal irakaskuntza. Cuenca ematen den gaitegi berdina, baina euskaraz, ez da euskal irakaskuntza, euskarazko irakaskuntza baizik”, zehaztu dute.

Diagnosiaren arabera, “gure herriko gaztetxoek jakintzari dagokionean,

euskal kulturaz, historiari, geografiaz, arteaz edo literaturaz dakitenaren gehien-goa, eskola edo irakasle zenbaitzuen esfortzuaren ondorioa edota eskolaz kanpo ikasitakoa da”.

Lanbide heziketa eta unibertsitatea euskaldunndu

EHBeren iritziz, “Lanbide Heziketak euskalduntzea ezinbestekoa da lan mundua euskaldundu eta Euskal Herria euskalduntzeko bidean”.

Orokorrean, Lanbide Heziketan, euskalduntze prozesuan “Derrigorrezko Hezkuntzan ematen diren hutsuneak areagotzen dira nahiz eta honi aurre egiteko hizkuntza normalkuntza kanpaina, zein kanpaina nazionalak antolatu eta lantzen diren arren. Egoera honi gehitzen zaion beste zailtasunetako bat material propiorik ez izatea da eta daukatena, euskaratzeko bidean dagoela”, zehaztu du EHBek.

Diagnosiaren arabera, Ordiziako Unibertsitatean, irakasle eta ikasleen arteko giroa euskalduna da orokorrean. “Hala ere, daukaten material gehiengoak ingelesez edo erderaz dago. Beraz, bertako langileen esku gelditzen da material hau euskaratzeko zama”, gaineratu dute. Curriculumari dagokionez, %85a aldaezina da.

www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza
Europar saritutako proiektuak
Kalitatezko hezkuntza
Emitza bikainak
Irakasleria iraunkorra eta
konprometitua
Hurtzaindegia
Jangela
Garraioa

INFORMAZIO BILERA

otsailaren 28an (asteazkena)

5:00etan Euskaraz eta 6:30ean Gazteleraz

jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



Dani Oiarbide: Londresko euskara irakaslea



Londresko “zementuzko oihanean”, euskara irakasten ari da Dani Oiarbide goierritarra, ingelera ikastearekin batera. Lorezaintza lana ere egiten du, bizimodua aurrera ateratzeko.

IÑAKI ARIN Aseguruak




☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

IBAI ONDO



AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5

BEASAIN


Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Irailaren 21az geroztik, Idiazabal bizi den beasaindarrek Londres du bizileku. “Zementuzko oihanean” bizitzen ohitzen ari da pixkanaka-pixkanaka Dani Oiarbide.

Ingelesa ikasi eta euskara irakasten ari da beasaindar idiazabaldarra. “Euskal Etxea badago Londresen eta Euskal Etxe horrek Unibertsitate batekin, euskara klaseak sortu zituen. Orain dela 8-9 urte hasi ziren. Lagun bat baneukan lan horretan ari zena eta haren bidez joan naiz ni”, dio Oiarbidek.

Dena den, hasieran zuen asmoarekin urruti dabil. “Lehenengo asmoa, 2 edo 3 hilabeterako ingelera ikastera joatea zen, eta ez Londresa, beste norabaitera. Hiri handitxoan iruditu zitzaizdan Londres. Lagun haren bidez nora joan nitekeen galdetu nion eta hark eskaini zidan bera uztera zihotan lan hura hartzeko. Orduan ez nengoen oso komentzitura, ez neukan garbi joan ala ez joan... Aberri Egun bat antolatu zuen Euskal Etxeak eta trikitixa jotzera gonbidatu ninduten, Iker Zubeldia bertsolariarekin batera. Asteburu pasa joan ginen, hura zer zen ikusi eta erabakitzeke. Eta erabaki nuen ez nintzela joango. Oso handia iruditu zitzaizdan, zementuzko oihan bat. Handik bueltan eta neska hura galdezka nuen joango nintzen ala ez eta azkenean udan erabaki nuen joan egingo nintzela”.

Ostegun arratsaldetan ematen ditu euskara eskolak, hiru orduz. 20 bat ikasle ditu. “Batzuk Unibertsitateko ikasleak dira, hautazko gai bezala baitaukate euska-



Trikitilaria eta bertsolaria Londresen

Dani Oiarbideren trikitixarekin eta Iker Zubeldia zegamarraren bertsoekin, asteburu pasa egin zuten Londresen, 2006ko Aste Santuan, Aberri Egunaren aitzakian. Londres ez zitzaion batere gustatu Oiarbideri. Dena den, esperientzia berria biziz, 2006ko irailean Londresera joan zen euskara irakatsi eta bere ingelera hobetzera.

ra. Hispanicas departamentuaren barruan ematen da Euskara. Baina euskara klaseetara bakarrik joaten den jendea ere ba badago. Niri harrigarria egin zitzaizdana da, jende heldua dela, 50-60-70 urtekoak”, aitortu du euskara irakasleak.

Euskal jatorrikoak diren ala ez galdetuta, Dani Oiarbidek honela erantzun digu: “Euskal Herriarekin loturarik ez dutenak dira gehienak, Londresko ingeles peto-petoak dira. Medikuak, abokatuak... Euskal Herrira oporretan etorri, gustatu, afizio pixka bat hartu eta euskara ikasten hasi direnak... Beste asko dira, itzultzaileak eta hizkuntza-

lariak. 60 hizkuntza ezagutzen dituen bat ere badago”. Hori bai, tartean hiru euskal herritar ere badaude: bi bizkaitar eta nafar bat. “Iruñako mutil bat badago, 24-25 urtekoa eta ia hitzik ez zekien euskaraz. Ingelese oso zail egiten zaie Iruñako mutil gazte batek euskaraz hitzik ez jakitea. Historia ezagutzen dute baina harrigarria egiten zaie”, azpimarratu du.

Euskal Herriarekin interes handia

Goierriarrari ere arraroa eiten zaio oraindik Londresen euskara ikasten aritze hori. Hitzen jatorria, hitz-elkarke-tak... asko gustatzen zaiz-

kie euskara ikasleei. Dena den, Oiarbidek onartzen du Londresen euskara ikastea oso zaila dela. “Gela batean euskara ikastea zaila da, ezin baitaiteke inon praktikatuta. Gramatika ondo barneratzen dute baina ez daukate hitz egiteko aukerarik. Taberna bat badago ondolan eta klaseak bukatutakoa hara joaten gara eta hura izaten da klasetik kanpo egiten duen mintzapraktika bakarra”.

Euskara erakusteko materialaren aldetik, “berez Unibertsitatean badago gela bat Euskal Ikasketena eta berez materiala han badago, 8 urtean pilatzen joan dena. Haberekin harremana

PSIKOLOGI KLINIKOA

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak


izal
 IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
 ☎ 943 187 045
Ondramuño baserria
IDIAZABAL



Dani Oiarbidek Londresen dituen euskara ikasleak adin eta mota guztietakoak dira.

badago, AEK-ko materiala ere badago. Euskal Etxearen eta Euskara klaseen sortzaile izan zen Aretxabaletako gizon batek materiala sortu egin zuen. Ez dago metodologia berezirik, ingelesei euskara erakusteko. Hark sortu egin zuen zer bait. Nik ere eraman nuen hemendik zer bait eta sortu ere bai”.

Hori bai, euskara irakasleko erritmoak ez omen dauka hemengoarekin antz

handirik. “Ez doaz tituluen atzetik eta klaseak lasaiagoak dira. Hizkuntzari berari ere garrantzia handia ematen die baina ez dira horretara mugatzen. Euskal Herriko kontuak gustatzen zaizkie: mitologiako ipuinak, toponimia...”, gaineratu du.

Hizkuntzaz gain, Euskal Herriaz interes handia omen daukate. “Denak dauke Euskal Herrian izanda. Durangoko azokara urtero

etortzen den jendea ere badago. Euskal Herriari buruz asko dakien jendea da. Literatura, musika, politika... ezagutu nahi dituzte”, dio goierritarrak.

Lorezaintzan

Hasiera gogorra egin zitzaion Dani Oiarbideri baina bizimodu berrira egokitzten ari da. Hori bai, euskara klaseak emanez bakarrik bizitzerik ez dagoela eta, lorezaintzan ere lan egiten

du. “Lorategietan tradizio handia dago, lorategi eskolak ere badaude”.

Idiazabaldarren espedizioa

Euskal Etxea badago Londresen eta hilean behin hainbat euskaldun biltzen dira. “Euskal Etxerik ez dago, gizartetxe baten barruan bulego bat dago”, zehaztu du. Euskal Etxearen bueltan, euskararen aldeko egun bat antolatzen ari dira eta egun horretan parte hartzeko, Idiazabaldik, herri kirol taldea joateko prestakuntzak egiten ari dira. Hasiera batean, egun hori Aste Santun ospatzekoa bazen ere, uda edo udazken aldera atzeratu dute. Gustura hartzen dira bisita”, esan du goierritarrak.

Internetari esker, Euskal Herriko eta Goierriko berri jakiten du Dani Oiarbidek. “Hitza oso gustura irakurtzen dut. Gauza ederra da. Egunero sartzen naiz egunkariak irakurtzeko, hemen baino gehiago irakurtzen dut. Hitzari esker adibidez, San Blas jaiei buruz ondo informatuta egon naiz”.

Lagunekin osteguneroko soziedadeko afaria eta lagun giro hori faltan somatzen du gehienbat Dani Oiarbidek. Horrekin batera, janaria ere bai, “janari normala. Kanpora joatea besterik ez dago hemen zeinen ondo bizi garen ikusteko”, onartu du goierritarrak.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOEGIA

943 18 01 19 ATAUN

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Aho finen
gozamenerako...*

Gure kartak otordu
landuak eskeintzen
ditu non zapore eta
texturak aurkezpen
harmoniosuekin
konbinatzen diren...



factone

La Salle
Beasain

1909 ezkerotik herriaren zerbitzuan

Q
Euskadi
2005

ESKOLA KRISTAUA

PARTE HARTZEKO
KUDEAKETA

EUSKALDUNA

PEDAGOGIKOKI ITZELA

BERRITZAILEAK



Jangela



Eskola garraioa



Hautzaindegi
zerbitzua



943 88 01 39



www.lasalle.es/lasallebeasain2

Garikoitz Bravo txirrindulari lazkaotarra:

“Mundiko txapelketara joatea izan da orain arteko lorpenik handiena”

Ziklo-kros denboraldia bukatu eta errepideko denboraldia hastear dagoela harapatu dugu Garikoitz Bravo. 17 urteko lazkaotarra Caja Rural taldean dabil, jubentzetan bigarren urtea du. Tolosan elektrikizateko modulu bat egiten ari da.

Errepideko denboraldia hastear dago. Aurretik ziklo-krosean aritu zara. Zer moduzko denboraldia izan da?

Oso ona. Gustura nago.

Espero baino hobeto ibili al zara?

Bai, bai askoz ere hobeto. Ez nuen hainbeste espero.

Saririk bereziena zein izan da?

Munduko txapelketara joatea, Belgikan jokatu zen. Zaila zegoen, baina lortu egin nuen eta hori izan da orain arteko onena. 31. egin nuen eta oso gustura gelditu nintzen.

Esperientzia ona izan al da?

Oso ona. Asko ikasten da horrelakoetan.

Zer ikasi duzu?

Abiadura. Hemen ez da hain azkar ibiltzen. Maila oneko txirrindulariak dira eta azkar ibiltzen da Mundialean. Teknika aldetik ere zerbait ikasi dut. Karrera gogoragoak dira.

Munduko txapelketara joan ahal izateko, zer irabazi behar izan duzu?

Muxikakoa izan zen karrera garrantzitsua, Espainiako



guztiak etorri ziren-eta. Irabazi egin nuen. Igorreko nazioarteko proban ere ondo ibili nintzen, 5. egin nuen. Hiru eslobakiar eta Jon Izagirre izan ziren aurretik. Denboraldi guztian aurrean ibiltzea izan da gako. Ibili naizen bezala ibiliko ez banintz, ez nintzatekeen joango seguruen.

Ziklo-krosa makal samar dago eta gustatu egin behar da horretan ibiltzeko.

Ziklo-krosetik ezin da ezer irabazi. Niretzat bizio bat bezala da ziklo-krosa. Errepiderako prestakuntza bezala hartzen dut.

Ziklo-krosa gehiago gustatzen al zaizu?

Niri gehiago gustatzen zait lokatzatan ibiltzea. Gustatu bai, baina azkenean utzi egin beharko dut.

Uzteko asmoa al daukazu?

Bai, denborarekin... Pare bat urte eta utzi egin beharko dut. Afizionatueta taldeak zer esaten dizunaren arabera dago, baina beharbada utzi egin beharko dut. Nik gustura jarraituko nukeen, hori ziur. Polita da.

Ez al dira bateragarriak bi espezialidadeak? Taldeek ez al dute nahi izaten?

Ziklo-kros denboraldi osoa eta ondoren errepidekoa, zaila izaten da. Taldeek nahiago izaten dute errepi-

dekoa bakarrik egitea. Kanpura joan, bueltak korritu...

Errepideko denboraldia prestatzen hasi al zara?

Otsailaren 24an hasiko da eta aste horretan bertan hasiko naiz entrenatzen.

Entrenamenduak ezberdinak izaten al dira?

Ez gehiegi. Ziklo-krosean helburua ez da kilometro kopuru bat egitea, teknika ona eduki behar da. Oztipoak jartzen dituzte eta txirrindutik jaisten eta igotzen jakin behar da. Teknika aldetik ezer ez badakizu, denbora galdu egiten da. Errepidean, kilometroak egitea da. Ziklo-krosean, 45 minutuko probak izaten dira,



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

LEIAR



KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

baina 'esplosiboak' izaten dira.

Errepidean zer moduz ibiltzen zara?

Beno, gustura, ondo. Iaz nahiko ondo moldatu nintzen eta aurten jubeniletan bigarren urtea dudanez, nik uste dut hobeto ibiliko naitzela.

Zein ezaugarritako txirrindularia zara?

Mendian ibiltzen naiz gustoen; sprintean ere nahikoa ondo moldatzen naiz. Karrera gogorrak gustatzen zaizkit.

Zure burua ikusten al duzu Tourreko etapa erregina horietako batean?

Imajinatu, imajinatu...

Txirrindulari bezala, zein da zure helburua?

Denena dena, ahalik eta urrutien iristea. Urtean Euskaditik gutxi igotzen dira eta denok igo nahi dugu.

Sprintean

Txirrindulari bat:

Errepidean, Vinokourov eta ziklo krosean, Nijs.

Karrera bat:

Igorrekia eta Munduko txapelketakoa.

Amets bat:

Gora iristea.

Zaletasun bat:

Korrika egitea eta pilotan jokatzeta.

Musika talde bat:

Bat ez dakit, baina rock musika gustatzen zait.

Musika entzunez entrenatzen al duzu?

Ez zait gustatzen, despistatu egiten naiz eta.

Lasterketa aurreko gosaria:

Arroza eta laranja zukua.

Txapelak non gordetzen dituzu?

Orain arte logelan baina dagoeneko ez zaizkit kabitzen.

Lokatzak nork garbitzen ditu?

Amak. Horren kontura haserre asko izaten ditugu etxean.



Arg.: Angel Elorza

San Benito ikastola **KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA**

*Zure seme-alabaren hezkuntzan
parte hartu nahi dugu*

- Gertuko jarraipena

- Irakasle talde finkoa

- Giro euskalduna

- Teknologia berrien bultzatzailea

Izen-emate epea:
*Otsailaren 26tik
Martxoaren 9ra*

- Eleanitza

- Guraso eskola

- Garraioa

- Jargela

BATXILERGOA BERTAN

www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800

Emaila: lazkao@ikastola.net

LAZKAO



ETXEBIZITZAK

salgai

Ataunen, San Martinen. Berrituko 2 etxebizitza. INMO F3 943164936 - 629417171.

Aukera, merkea. Etxebizitza izateko egokitutako etxabea salgai, sarrera ataritik duena. Beasain erdigunean. Biltegitarako edo edozein jardueratarako egokia. 686062963.

Beasainen, berrituko pisu eder bat erdigunean. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain: futbol zelaitik gertu, 65 m²ko etxebizitza salgai. Hiru logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasainen, 90 m²-ko pisu argitsua salgai. Igogailua, berogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 252.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasainen, erdigunean, berritutako apartamentu polita salgai. Sartzeko prest. 180.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Hiru eta lau logelatako etxebizitzak. Sukalde hornitua, egongela, bainugelak, trastelekua eta terrazarekin. Igogailua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain: Nafarroa Etorbidean, 125 m²ko atikoa salgai, igogailuarekin. Sabaia eta zorua eginda, barneko banaketa norberak egiteko. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasain. Hiru logelatako etxebizitza. Egongela, sukalde hornitua, bainugela, igogailua eta garajea. Eguzkitsua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Beasain. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Bestelako salmentak: Ataunen, lokal komertziala, 120 m²; Beasainen, pisu eraiki berria; Beasainen, Arriaranen, etxebizitza unifamiliarra. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Ezkio-Itsaso, familiabakarra: sukaldea, 4 logela, 2 bainu, jan-gela eta egongela, estudioa, txokoa eta garajea, eguzkitsua eta 500 m²ko lorategia. Informazio pertsonalizatua. GUNE 943037975.

Hurrengo eraikuntzak: Ataun San Martinen (erdigunean) 4 txalet; Ataun (udaletxetik gertu) pisu eta garajeak; Ordizia (erdigunean), Egutera kalean 10 etxebizitza eta trastelekuak; Gabiria (erdigunea), 3 etxebizitza berritutako base-rrian eta 6 txalet adosatu. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Idiazabalen 115 m²ko pisua salgai. Erabat berritua. Berogailua eta igogailua. Garaje eta ganbarakin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabalen, eraikuntza berria: bi eta hiru logelako etxebizitzak, 43.500.000 milioitik hasita. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Idiazabal. Eraikuntza berriko etxebizitzak. Bi eta hiru gelakak eta duplexak. Garajeak ea lokal komertzialak. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Lazkao: 80 m²ko etxebizitza, hiru logelakoa, eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Legazpi, Domingo Agirre: sukaldea, 3 logela, bainua, egongela, trastelekua, ganbara. Dena altzariz hornitua. 38.000.000 pezeta. GUNE 943037975.

Legorretan, eraikuntza berriko etxe adosatu zoragarria. INMO F3 943164936 - 629417171.

Olaberria: 220 m²ko etxe bifamiliarra, hiru solairuetan eraikia. 700 m²ko lorategia. Informazio pertsonala. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ordizia: Altamira auzoan, 60 m²koa, hiru logela, guztiz berritua, eguzkitsua. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ordizia. 90 m²ko etxebizitza. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua, bainugela eta trastelekua. Dena berritua. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ormaiztegi. Hiru logela, egongela, sukalde hornitua eta bainugelak. Igogailua, trastelekua eta garajea. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Ormaiztegi-Gabiria (Irizar alboan): bizitza bakarreko 6 etxebizitza, binakako blokeetan. ALBITXU ERAIKUNTZAK S.L. 652775741.

Segura: 95 m²ko etxebizitza, 68 m²eko patioa eta 60 m²ko lokala. Berrituko. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Segura kanpo aldera ematen duen 90 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, 27 m²ko garajea eta 18 m²ko trastelekua. 639962850.

Segura: Neurri ezberdineko etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Segura. Eraikuntza berriko etxe adosatuak. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugelak. Garajea, terraza eta lorategiarekin. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Urretxu, Madaia. Logela bat, sukalde-jangela, bainua, trastelekua. Dena kalera begira. 31.500.000 pezeta. GUNE 943037975.

Zaldibia. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, bainugelak, terrazak eta garaje itxia. BERIO INMOBILIARIA. 943805721.

Zumarraga, Piedad kalea: 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, jangela. Dena kalera begira, bizitzera joateko prest. 51.000.000 pezeta (negoziagarriak). GUNE 943037975.

Zumarraga, Urola kalea: 70 m², bi logela, sukaldea, bainua, egongela. Dena kalera begira. Oso polita. 44.000.000 pezeta (negoziagarriak). GUNE 943037975.

PABILIOIAK

errentan eman

Beasainen, pabilioia alokatzen da. 620 m². Zubi garabia, komunak, eta abar. 662331550.

GARAJEAK

salgai

Donostiako Antiguon, 7.500.000 pezetako garajea itxia salgai. 629878552.

NEGOZIOAK

errentan eman

Urretxun pub-a alokatzen da taberna gunean. 645717232.



biok
zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala



ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA

IBILGAILUAK

salgai

Nissan Pick-up 2500 td 4x4 ibilgailua salgai. 6 urtekoa. 626072965.

Opel Corsa salgai. 44.000 km. Egoera onean. 652730092.

Opel Astra salgai. SS-AP. Garajejan gordea. 605766110.

LANA

eskaerak

Pertsona bat behar da aste-buruetan taberna bateko barran lan egiteko. 943160205.

Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu. Obrak, industrietarako... 943800000.

Ingelesko irakaslea behar da pertsona bakarrari eskolak emateko. 679556586.

eskaintzak

Antzuolan tarota irakurtzen da. 943766214.

Garbiketa lanak, gaixoak eta adineko pertsonak zaindu eta edozein lanetarako prest nago. 678781985.

BESTELAKOAK

salgai

Ume logela salgai, prezio onean. 665717162.

Sutarako pago egur lehorra salgai. 615755762. Etxera entregatzen da.

Sutarako egurra, prestatuta, salgai. 699647192.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info

gh@goierrikohitza.info

GALDUTAKOAK

Balio handiko kartera aurkitu duenak Urretxuko Alda-para dei dezala. 662247715.

ANIMALIAK

opari

Bi txakurkume oparitzen dira, beltza eta pinttoa, biak arrak. 943884214. (Gauzez deitu).

ainaraetxeberria



HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



6 Etxebizitza Arbizon

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

TDH Lizarraga

Beasaindik 20 minutura
210 metro Etxebizitza + Lorategia
Bizitzera berehala sartzeko
PREZIOA: 273.000€ + BEZ

INFORMAZIOA eta SALMENTA
618 610 372
948 468 454




Ormaiztegi Arrategi etxeko sendia 1919. urtean

Ander Iurritak utzi digun argazkian Ormaiztegi Arrategi etxeko Arzelus Irizar sendia ageri da, gurasoak eta 10 seme-alaba, beren senar-emazteekin. Sendi hau Arrategi etxera 1894. urte inguruan iritsi zen, bertan alaba gazteena jaio zelarik (Isabel). Aurretik 2 seme-alaba zaharrenak (Inazia eta Bizente) Ormaiztegi Mendizabal-Garakoa baserrian jaio ziren eta beste 7 seme-alabak Ormaiztegi bertako Iraegi-Errota baserrian.

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Agapito Garmendia eta Ildefonsa Arzelus (Lazkaoko Biona etxera ezkonduak), Pablo Arzelus eta Ramona Arroiabe (Bergarara ezkonduak), Dolores Arzelus eta Juan Manuel Albisu (Lazkaora ezkonduak), Balentina Imaz eta Frantzisko Arzelus (Zumarragara ezkonduak).

Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera: Gregorio Lizarazu eta Maria Kruz Arzelus (Ormaiztegi Antonene etxera ezkonduak), Maria Loiola eta Bizente Arzelus (Ormaiztegi Arrategi etxera ezkonduak), Klara Imaz eta Nikolas Arzelus (Segurara ezkonduak, Klara eta Balentina Imaz ahizpak Segurakoak ziren).

Aurreko ilaran ezkerretik eskuinera: Juan Antonio Izuzkitza eta Inazia Arzelus (Ormaiztegi Izuzkitzane etxera ezkonduak), Joxe Mari Igarzabal eta Maria Arzelus (Zumarragara ezkonduak), Julian Arzelus Alzola (aita), Kasilda Irizar Katarain (ama, izatez Ormaiztegi Ugarkalde baserrikoa), Isabel Arzelus eta Esteban Aranes (Argentina ezkonduak, urte batzuk han igaro ondoren Ormaiztegi Zibur etxera etorri ziren).



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrocientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



URDANETA AH

Intxausti Plaza z/g.

Tel.: 943 88 27 80

Faxa: 943 80 53 10

012279aa@hezkuntza.net

www.urdanetaikastetxea.org

OIANGUREN BHI

Altamira Auzoa z/g.

Tel.: 943 88 08 62

Faxa: 943 16 41 21

012282aa@hezkuntza.net

www.oianguren.net



ORDIZIAKO ESKOLA PUBLIKOA

Aukeratu zeurea guztiona

HAUR HEZKUNTZA

Artile laranja 9 cent

Artile urdin argia 2 cent

Artile urdin iluna 3 cent

LEHEN HEZKUNTZA

Artile turkesa 10 cent

Artile arrosa 8 cent

Artile horia 4 cent

DBH

Artile berde argia 5 cent

Artile berde iluna 6 cent

BATXILERGOAK

Artile moratua 7 cent

Artile txuria 20 cent

HEZIKETA ZIKLOAK


Artile granatea 5 cent

Artile gorria 6 cent

3 eraikin
1 proiektu

Urdaneta - Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da.

Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.



*Etxearen
epelean*



TXIMINIAK

✕ Burdin galdatuzkoak

✕ Gasezkoak

✕ Elektriakoak

*Ez dute behar ez ke
irteera, ez obrarik*

✕ Sukalde klasikoak

ESTALDURAK

✕ Harlandua

✕ Simulazioa
poliuretanoan

Egurrezko habeak

Adreiluak

Arbela



SUTAN

Tel./Faxa: 943 720 638

Mug.: 665 737 302

Mugitegi industrialdea, B bidea 6 behea
20700 URRETXU

www.sutan.biz

e-posta: sutan@sutan.biz

